Hegiaphal, Arnaud

Sokiüta

jaun kalonjea

Ezinago atsegiñekin irakurri dut zure "Herriako" bi artikiliak. "Je suis un soutier" eta "3+4=1". Ezgütüt ezagutzen jauna, bena erraiten düzü klarki Xiberoko laborari gaztek beren gogoan igaraiten dütiena. Bestalde "soutièr" izatiak esplikatzen dü "3+4=1". Frantziak ahatze dü gure aiten odol ixuria eta sofrimenak, haren tzat. Egün, nahi gütü, lasterki gure lürretarik eta bilotü Panterreko "tavolis" eta

han izan ziztian V^e republikako jaunen eskalabo. Industriak,
geldiaz ziö gure Eüskal-Herriaren hiistia, bena eztügü behar
deusik edükhi oraiko gobernütik. Bestalde gure mendietan, Pebrée-k
laborari gazter erana, ezta baliatzen, Laborari zonbaiten jokaitia
eztütü bestiak aberasten. Bestelan, Lakharri eta Atharrai
gañian batzuen gien laborariek behar lükie izan
milionariak. Hurak ere aliz eratxiiko dira behera, zügar
begian, haurrak eztütilakotz nahi egon han, bortian
galdurik eta jaizgorik gabe. Bena hola erraitez
V^e gereneko zizkhinkeriak ixeetatzen dia gure bekeztia.
Hori bihurtzeko etzaikun batzen Eüskal-Herriaren batasüna
baizik Europaren barnen. Holaz gure egoko anaien iragaitzi-
-ak alde hunantilat jin litazke. Segur atsegin dut, irakastez
"ENBATA"-ko gaztiak bezala, phentsatzen düiela Eüskaldun
bagu, hoben zonbaitek, zeren ezpeita ere ustez beste egite
korik egünko egünian. Segi, hola hola zaude kalonjea,
zure botza gurea bena hobeki entzüna dükeza ere zon-
-bait güretan. Eran ezazü ere gure egoko anaie abertzaler,

ekonomiaren khoastüz dela aisemki
eginez Euzkadiren batarzüna,
eta Euskaldunak iratzariko.
Xiberotarrak jakiten ofiga
lan eskasia lasterkarik Parisera.
Zer atseginekin zonbait berriz
itzül litazke beren herrilat;
eta zer indarra politikan,
industria haien ekharazler!
Uste düt, zü bezala ari balite
beste Euskaldun idazliak
gure herria hiltzeko phartez
jeiki litakila denbora llaburrean.
Segi hola hola zure sailan jauna.
Lagüntürik zirate gure
olhoitze eta goraintzi hoberenez.

Arnaud Heguiaphal
"UHHART"
Cheraute (Sohüta)
par Mauléon (B.P.)